

XXIV. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Diren guztien egile eta nagusi zaren Jainko Jauna,
begira iezaguzu
eta emaguzu bihotz guztiz Zu zerbitzatzea,
zure errukiaren ondasunak irits ditzagun.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ex 32, 7-11. 13-14

*Damutu zitzaion Jaunari,
bere herriari egin zion zemaiaz.*

Exodo liburutik

Egun haietan, Jaunak honela hitzegin zion Moisesi:

«Jaitsi zaitetz menditik; bekatu egin du, zuk Egiptotik ateratako herriak. Berehala okertu dira, Nik erakutsi nien bidetik; urrezko zekor bat egin dute, eta gurtu eta opariak eskaintzen dizkiote, eta esaten dute: "Hau da, Israel, Egiptotik atera zintuen zure jainkoa"».

Eta Jaunak berriro ere Moisesi: «Ikusten dut, herri hau lepagogor dela; utzidazu nire haserrea horien aurka sutzen, honda ditzadan; eta herri handi bat sortuko dut zuregandik».

Moisesek, ordea, honela otoitz egin zion Jaunari, bere Jaungoikoari: «Zergatik sutu behar du, Jauna, zure haserreak, indar handiz eta esku sendoz Egiptotik atera zenuen zure herri honen aurka?»

Gogora itzazu zure zerbitzariak, Abraham, Isaak eta Israel, haiei honela zin egin baitzenien zeure buruagatik: "Zuen jatorria zeruko izarrak adina ugarituko dut, eta aipatu dizuedan lurralde guzti hau zuen ondorengoei emango diet, betiko ondare izan dezaten"».

Eta damutu zitzaion Jaunari, bere herriari egin zion zemaiaz.

ERANTZUN SALMOA: Sal 50, 3-4. 12-13. 17 eta 19

R/. **Altxa eta banoa nire aitarengana**

Erruki zakizkit, Jainko, duzun maitasun handiaz,
suntsi ezazu nire makurra zeure amaigabeko errukiaz.
Garbi nazazu zeharo neure hobenetik,
ikus nazazu neure gaiztakeriatik. R/.

Bihotz garbi bat, Jainko, zor ezazu niregan,
arnasa bizkorra berri ezazu nire barnean.
Ez nazazu urrundu zeure aurretik,
zeure arnasa santua ez kendu niri. R/.

Irekiko dizkidazu ezpainok, Jauna,
eta nire ahoak iragarriko du zure gorespena.
Nire oparia, Jainko, bihotz damutua:

ez duzu arbuiatuko, Jainko,
bihotz damutu eta umildua. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Tm 1, 12-17

Jesu Kristo bekatariak salbatzera etorri zen.

San Paulo Apostoluak Timoteori

Anaia maite: Eskerrak ematen dizkiot Kristo Jesus gure Jaunari; izan ere, gai egin ninduen, niregan ustea izan zuen eta eginkizun hau nire eskuetan jarri; nahiz eta ni lehenago biraolari izan, erasotzaile eta laidotzaile. Jauna, ordea, errukitu zitzaidan, sinesgabea izanik ezjakinez egiten bainuen egiten nuena. Eta Jainkoak gainezka isuri zuen bere grazia nire gainera, niri sinesmena eta kristau maitasuna emanaz.

Benetakoa hitza da eta erabat onartzekoa: Jesu Kristo bekatariak salbatzera etorri zela lurrera, eta hauetan aurrenekoa naiz ni. Horregatik, iritsi nuen errukia, Jesu Kristok niregan erakuts zezan lehenengo bere bihotz handia, eta eredu izan nendin Harengan sinetsi eta betiko bizitza iritsiko dutenentzat.

Gizaldien Erregeari, Jaungoiko hilezkor, ikustezin eta bakarrari, aintza eta omena gizaldi eta gizaldietan. Amen.

EBANJELIOA: Lk 15, 1-32

Aleluia: 2 Kor 5, 19a. c

R/. Aleluia.

V/. Jaungoikoa mundua Berekin adiskidetzen ari zen
Kristorengan,
eta guri eman zigun adiskidetzearen hitza. R/.

Irakurgai laburragoa egin nahi bada, [] kako artean ematen den zatia utz daiteke.

*Poz handiagoa izango da zeruan,
bihotz-berritzen den bekatari bakar batengatik.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak pilaka hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta farisearrak eta idazlariak marmarrean hasi ziren elkarrekin, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin».

Orduan Jesusek parabola hau esan zien: «Zuetako batek ehun ardi izan eta bat galtzen badu, ez al da, laurogeita hemeretziak larrean utzita, galdutakoaren bila joaten, aurkitu arte? Eta, aurkitzen duenean, lepoan hartzen du pozik; eta etxera iristean, lagunei eta auzokoei deituta, esaten die: "Poztu zaitezte nirekin! Aurkitu dut galdu zitzaidan ardia".

Hara Nik esan: Poz handiagoa izango da zeruan, bihotz-berritzen den bekatari bakar batengatik, bihotz-berritu beharrik ez duten laurogeita hemeretzi zintzoengatik baino.

Eta emakume batek hamar drakma izan, eta bat galtzen badu, ez al du argia bizten, etxea garbitzen eta arduraz bilatzen, aurkitu arte? Eta aurkitzen duenean, lagunak eta auzokoak deituta, esaten die: "Poztu zaitezte nirekin! Aurkitu dut galdu zitzaidan drakma".

Hara Nik esan: Horrela poztuko dira Jaungoikoaren aingeruak, bihotz-berritzen den bekatari...

bakar batengatik».

[Esan zien gainera: «Gizon batek bi seme zituen: gazteenak honela esan zion aitari: "Aita, emadazu dagokidan senipartea ondasunetatik". Eta aitak banatu egin zien ondarea. Egun gutxi barru, seme gazteena, bere gauza guztiak bilduta, urrutira joan zen; eta, lasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituen.

Zituen guztiak eralki ondoren, gosete handi bat sortu zen lurralde hartan, eta beharra sentitzen hasi zen mutila. Orduan herri hartako batengana joan eta haren morroi jarri zen; eta hark bere larreetara txerrizain bidali zuen. Txerriek jaten zuten ezkurrez sabela bete nahi izaten zuen, baina inork ez zion ematen.

Orduan bere baitara itzuli, eta esan zuen: "Hamaika morroi bada nire aitarenean, nahiko ogi duela, eta ni hemen goseak hiltzen. Altxa eta banoa neure aitarengana, eta esango diot: Aita, bekatu egin dut zeruaren aurka eta zure aurka; ez dut gehiago zure seme izenik merezi; har nazazu zeure morroietako bat bezala". Eta altxa eta bere aitarengana abiatu zen.

Oraindik urruti zegoela, ikusi zuen aitak, eta erruki izan zuen; joan zen lasterka harengana, besarkatu zuen eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: "Aita, bekatu egin dut zeruaren aurka eta zure aurka; ez dut gehiago zure seme izenik merezi".

Aitak, ordea, esan zien bere morroiei: "Ekarri berehala soinekorik ederrena, eta jantz iezaiozue; ipin iezaiozue eraztuna eskuan, eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizona, eta hil; jan dezagun eta jai egin: nire seme hau hilda baitzegoen, eta biztu egin da; galdua zegoen, eta aurkitu dugu". Eta hasi ziren jai egiten.

Seme zaharrena soroan zen; eta handik etxera hurbiltzean, soinu eta dantzak entzun zituen; eta morroi bati deituta, hura zer zen galdetu zion. Morroiak erantzun: "Zure anaia etorri da, eta aitak zekor gizona hil du, semea onik aurkitu duelako". Hura haserretu egin zen, eta ez zuen sartu nahi; eta aita, aterata, sartzeko otoika hasi zitzaion. Baina semeak erantzun zion aitari: "Horrenbeste urtetan zure zerbitzuan egon, zure esanik behinere egin gabe utzi ez, eta antxume bat bakarrik ere ez didazu sekulan eman lagun artean jateko; eta emagalduekin bere ondasunak janda, zure seme hori etorri denean, zekor gizona hil diozu".

Aitak orduan: "Seme, zu beti nirekin zaude, eta nirea den guztia, zeurea duzu; jai egin behar genuen eta poztu; zure anaia hau hila beitzegoen, eta biztu egin da; galdua zegoen, eta aurkitu dugu"».]

Oparigaien gainekoa

Bihotz onez entzun, Jauna, gure eskariak
eta onartu zeure zerbitzarien eskaintzak;
bakoitzak zure izena goresteko eskaintzen duena,
denen salbamenerako izan dadila.

Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jaunartze honen grazia, Jainko Jauna,
gure gorputz-arimen jabe egin dadila,
geure nahiak ez,
baizik eta grazia honen indarrak agindu dezan gure bizitzan.
Jesu Kristo.